


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994eko urtarrilak 28 / IV. urtea / 112. zenbakia

Zen, Budaz haratago

'Buda Txikia' Bertolucci zine zuzendari italiarraren azken pelikula aste honetan estreinatzekoa da Nafarroan, eta hasia da dagoneko Budismoari buruz interesa pizten. Interes berririk ez, argitu beharko, 2.500 urteko erlijio hau mende honen hasieran sartu baitzen Europan. Egun, Nafarroan ez da talde budistarik baina bai bere aldaera den Zen-ari atxikiriko bi. Jarduera hau Japoniatik dator eta Frantziara 1967an ekarri zuen Deshimaru maisu japoniarrak. Zen ez da erlijio bat, ezta sekta bat ere, zaleek azaltzen dutenez, «praktika bat baizik». Eserita, isiltasun erabatekoan, nor bere baitan bilatzea da helburua, nork bere burua ulertzeko. Eta bide batez errealitatea ulertzeko.



Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



Habana fugit

Itsasertzeko hiria, portua, erritmo narratsa larruan behera irristatzen da, beroa eta, errainu bat kaieko bazterretan, ilun. Entzun.

Alegiaz ere, zoritxarreko pasioren batek jota bere gorputza kai luzea den gauean barna arrastatzen du gizonak ron botila eskuetan; emakumeak utzi ondoren otso-kolpe betean labana dantzatu eta... odola. Haruntzago saltsa musika eta bikoteak izerditan ezer gertatu ez bailitzen. Herio maitasunaren neurria atzera berriz. Almodovar Pirineotako alde honetan bizi garenontzat eta kamarak plano orokorrean gorantza eginez biziaren kredituak ematen dizkigu kalakaria pentsatzen dugun bitartean. Havanera.

Xabier Leteren azken diskan ('Eskeintza') bada kanta bat 'Habanera' deiturikoa. Pasio zoritxarrekorik ez, porturik ez, kantariaren argazkitako Karibe plastikozkora mugatzen da Karibe guztia, ametsa baino ez, hemen bizitzaren ametsa, lainoa, hotsa eta nola ez errosario santua. Entzun.

Ez dago, halaber, sentimendu trajikorik, ez bihotz zartakorik, malenkolia piska bat, adio batzuk eta lañotasuna, gure biziaren baporea itsasorantza, gu hemen ordea, nola abiatzen den begira, adio esaten. Habana hobe ez ezagutzea. Hemena da portua.

Kantak zirrara sortzen du, karibiar sentsualitateak sortuko ez lukeena sortu ere, trajikoegiak komiko bihurtzeko arrisku baitu, batez ere maitasuna denean tartean, behar da orduan, neurria, estaldura, herabea, finezia nahi bada, sentimenduak ez hanpatzeko lotsaren antzeko bat, eskola horretakoak ditugu Ruper Ordorika, Sarri, edo Mikel Laboa bera.

Euskaldunak hotzegiak garelako dio topikoak. Hego motzekoak omen ditugu sentimenduak, garen antzerkian beren papera ongi ez dakiten aktore akatsak. Hortan autista deritzote Elene Lizarralderi Carmen Maurarekin alderatuz.

Zernahi den ere, nabardura ez dago histrionismoari loturik, histrionismoak gerori gure buruen aktore eta, aldi berean, ikusle izatera behartzeaz gain imintzio asaldatuak, hitz-jasa gogotik, ttattarra eta sargaritan itotako pasioa baino ez dakar. Ispilu da portua. Besterena ote?

ERAKUSKETAK



Daniel Isturiz artistaren erakusketa zabalik dago Zangozako Bandres Galerian otsailaren 6a arte. Ikusteko ordutegia hauxe da: lan egunetan arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara, eta jai egunetan eguerdiko 12.00etatik 14.00etara.

Asuncion Garcia margolaria- ren erakusketa ikus daiteke Iruñean otsailaren 13a arte. Aurrezki Kutxa Munizipalak antolatuta, Rodezno Kontea kaleko aretoan dago ikusgai. Arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara dago zabalik lan egunetan, eta jai egunetan, berriz, 12.30etatik 14.00etara.

IKASTAROAK



Yoga, saloiko dantzak, eskulana, jostura, masaia, pintura eta marrazkia, antzerkia, autodefentsa emakumeentzat eta bestelako ikastaroak antolatzen ditu Iruñeko Alde Zaharreko auzo elkar- teak. Izena emateko, Elkar-teak Aldapa kalean duen egoitzara joan edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez dago.

Autodefentsa eta Autoestima, eta Adierazpen Korporala ikas- taroak antolatu ditu otsailerako Burlatako udaletxeko Gizarte Zerbitzuen taldeak. Datorren as- tean hasiko dira, eta bi hilabete iraungo dute. Izena udaletxean eman behar da, 500 pezetan tru- ke.

'Danza afro-caribeña' ikasi nahi dutenek Nafarroa Kirol El- kar-teak otsailan emango duen ikastarora joatea besterik ez dau- kate. Hilabete osoa iraunen du, eta izena emateko, Elkar-teak Ja- rauta kalean duen aretoa jo behar da, bestela, 22 43 24 edo 22 98 20 telefonoetara deitu.

BESTELAKOAK



'Piriniotako hirumilakoak' izenburupean, diapositiba ema- naldia eskainiko du gaur ostirala, urtarrilak 28, Nafarroa Kirol El- kar-teak. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Elkar-teak Jarauta ka- lean duen egoitzan, eta Luis Ale- jos mendigoizaleak zuzenduko du.

ZINEMA



'El fugitivo' izeneko pelikula ikusteko aukera izango da igande honetan, hilak 30, Leitzako zine- man. Bestalde, Doneztebeko zine- man 'Algunos hombres buenos' izeneko filmea botako dute, larunbat eta igandean, gaueko saioan.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

Aurreko eguna



Eztanda hotsak esnatu ninduen. Ohetik altxatu nintzen, kazetari senak baino pixagureak bultzatuta, baina komunerako bidean ohartu nintzen ez neukala lan egin beharrik.

Leherketaren eta greba egunaren arteko lotura hor bu- katzen zelako ustean oheratu nintzen berriro, baina bai zera! Irratiaren bidez izara artean sartu zitzaidan Miguel Sanz, Iruñeko lau bankuren kontrako atentatuak «ETaren pikete informatiboak» zirela esanez. Ordurako hitz joko finagoak entzunak nituen, COPEta handiko zenbait irratigizonen ahotan: sindikatuen piketeak «pikETAk» direla alegia.

Alfredo Jaime alkateak ere berea bota behar izan zuen. Bere karguak edo naturak, oraindik ez dakit, parekotasun

zorrotzak aurkitzeko eman dion dohaina erakutsiz, atzoko greba deialdiak Francoren garaikoak gogorarazten zizkiola adierazi zuen. «Bonbak bate- tik, greba orokorra bestetik...», gehitu zuen, antzekotasuna Francoren eta gaur egungo agintarien artekoa ez zela argi- tzeko edo.

Harritzen nau, oraindik orain, gure herriko amonazaleen ekintzei halako logika, es- trategia, esannahi berezi edo dena delakoa bilatu nahi iza- teak. Palestinan jaio ez, baina afiziotzat intifada forala duten hauek aspaldi erakutsi ziguten egutegiari, eguraldiari, dola- rraren kotizazioari, edota ber- ren ekintzen ondorioei erre- paratu gabe jarduten dutela. Idazle ospetsu bati, halako li- buru ez dakit zein santuren egunean zergatik bukatu ote

zuen galdetu ziotenean, honela erantzun zuen: «Alderantziz izan da, lehenengo liburua bu- katu, eta gero begiratu dut egu- tegia».

Horregatik, are gehiago har- ritsu nau Nafarroako sindikatu nagusiek amua jan izanak. Ka- kalariak jota bezala atera ziren Miguel Angel Anzizar UGTko burua eta Jesus Garatea CCOOko idazkari nagusia atentatuak gaitzestera, bonbek grebarekin zerikusirik ez zu- tela azpimarratzeko. Jakingo ez bagenu bezala. Atzo goi- zean sortuak izango bagina. Ez dago gaizki, hala ere, zenbai- tek beraiek ondutako lurraren fruitu ustelak probatzea. Jaime ahobero bat dela esateak ez du balio orain, Anzizar jauna, ez behintzat zeuk Itoizkoei buruz esandakoak oraindik gogoan ditugunean.

ASTEKO PERTSONAIK



Fernando Arretxe
Pilotaria

Ghienek ez zuten uste horrelakorik gertatuko zenik; ez Arretxe eta Titin III pilotari onak ez direlako, ez horixe, baizik arerio moduan Retegi II dagoenean apustuak eratsundarraren alde ateratzen direlako. Ziurrenik, larunbateko partiduan, batek baino gehiagok diru mordox- ka galduko zuen. Fin eta oso serio aritu ziren hasieran favorito ez zirenak. Arretxe luzaidarraren maila ezaguna da denontzat, gero eta hobeki dabil pilotari hau, indartsu eta gogoz. Belokiri izugarritzko pi- lotak bidali zizkion, eta hasieran Burlatako gazteak erantzun bazuen ere, pixkanaka jaitsi egin zen. Titin III ongi aritu zen, azkeneko par- tiduetan bezala, eta bien artean zortzi tantuko aldea atera zioten mai- suari. Ez da gutxi, ez. Merezi dituzte jasotako txaloak.



Federico Tajadura
PSNko parlamentaria

Joan den larunbatean Iruñean ospatutako Batzar Probintzian, Alderdi Sozialistaren bi adarrek, ofizialak eta kritikoak, odezkariek lortu zituzten Madrilgo Kongresu Federalean parte hartzeko. Kriti- koek ia botoen % 25 lortu zuten, Federico Tajadura parlamentariak defenditu zuen txostenari baietza eman baitzioten. Gabriel Urralburuk defenditu zuen ponentzia ofizialak —'Ponencia Marco' izenekoak— gehiengoa lortu bazuen ere, garbi geratu da kritikoek indar asko hartu dutela Nafarroan. Azkenean, ofizialek, Urralburu eta Soltxaga buru direlarik, bost ordezkari lortu dituzte, eta kritikoek bi. PSNko buruak adierazi zuen batzarren ostean giro lasai eta onean egin zutela bilera, beraien arteko adostasunak garbi utzi zituztelako.

AHAZTU GABE!

JAIK



Ituren, Zubieta eta Sunbilla he- rrietan asteburu honetan ospa- tuko dira inauteriak, aurretik Leiza eta Aniz-Berroetan os- patu diren bezala. Jakina denez, urtero aurreratzen dira herri hauek jai hauetan, beste gehie- netan beranduxeago izanen baitira. Sunbillan gaur hasiko dira ospakizunak, Ulibeltzak elkartean egingo den gosaria- rekin. Ondotik, gazteak base- rrietan barna ibiliko dira, eta arratsaldez, haurrak mozorro- tuta aterako dira txokolatea ba- natzera. Ilunabarrean, dantza izango da arkupetan, eta ondo- ren gazteen afaria Bustitz os- tatuan. Bihar, larunbata, gosa- ria Iruribietan eta bazkaria Fon- dan izango da. Arratsaldez, mozorro dantza arkupetan eta ondoren afaria izanen dute He- rriko Etxean. Igandea, gosaria elkartean eta eguerdian ikuski- zun handiena: karrozen desfi- lea. Ituren eta Zubietan, aldiz, bihar hasiko dira ospakizunak, afari, musika eta bestelakoekin. Astelehenean, hilak 31, aurtiz- tarrak eta zubietarrak Iturenera hurbilduko dira, urtero bezala, eta hurrengo egunean, aurtiz- tarrak eta iturenarrek Zubie- tara joko dute, bisita itzultzera.

jenero xumekoak

Heriotza gaztetara ir- teten denean

Herioa gaztetara irteten denean, itzultzerik ga- beko itsasontzi horren tropa behartua biltzera, lantxurdeak propio la- guntzen dio. Atera bi baso pattarra. Bata Ara- noko neska harengatik, eta beste bat biderako.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostira- lera, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00eta- ra... **Karakola segi hola** gaz- teendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rriketak.



Auritz

Herriak Larreko omendu zuen

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Fermin Irigaray 'Larreko' idazle eta sendagile auriztarrak gerra garaian idatziriko izkribuak biltzen dituen liburuaren aurkezpena egin zen bere herrian, Auritzen, joan den larunbatean, hilak 22. Bertan izan ziren Joxe Angel Irigaray eta Xamar liburuaren prestatzaileak; baita Aurizko Udalaren ordezkariak eta herritar franko ere. Herriko liburutegi berriak 'Larreko-ren' izena izanen duela iragarri zen gorazarrezko aurkezpenean.

Arratsaldeko 7etan Herriko Etxean hasi zen ekitaldira 60 bat lagun hurbildu zen, Aurizko ia etxe guztietakoak. Izan ere, gonbitea etxez etxe egin zuten antolatzaileek —Pamiela argitaletxeak eta Aurizko Udalak— 'Gerla urte, gezur urte' izena daraman liburuari eta Larrekori berari buruzko triptikoa banatuta. Halaber, Aezkoatik eta Erroibarretik etorritako euskaltzale franko ere hurbildu ziren idazlearen herrira.

Pamiela argitaletxeak ateratako liburuaren aurkezpenaz gain, bazuen esanahai berezia larunbateko ekitaldiak. Izan ere, Aurizko herriak, bere udalaren bi-



Auritz osoko etxeok azaldu ziren aurkezpena.

Herriko liburutegi berriak 'Larreko-ren' izena izanen duela iragarri zen gorazarrezko aurkezpenean.

tartez, omenaldi egin nahi baitzion idazleari, triptikoa azaltzen zen bezala: «Auritzeko herria biziki poztan da liburuaren argitaratzearen karietarat eta sortu zeneko 125gn urtemugan Larreko ohoratzeaz; 1972-IX-10ean Euskaltzaindiarekin batera egin zuen bezala. Hura omenduz bere buruari ere baitio Auritzek gorazarre egiten. Dena den, hitza baino gehiago egintza denez munta duena, omenaldirik egokiena Auritzeko bireuskalduntzean zinez bermatzea litzateke. Guri da auzia».

Hori dela eta, liburutegi berria izango denak idazlearen izena eramanen duela azaldu zen bertan, eta oharpen bitxi gisa, bere apalategietara sartuko den lehendabiziko liburua Larrekoren hau izanen dela esan behar.

Navarriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Gutxieneko zerbitzuak

Metropoli handietan gau-txoriak egunero irteten dira, gau guztiak dira parrandarako aproposak. Iruñean berriz, ez. Iruñea ez da metropoli handia. Agian metropolia dela esatea ere gehiegi esatea da. Iruñean gau-txoriak asteburuetan besterik ez dira gau-txori izaten, eta Alde Zaharreko karrika eta tabernak ostiral eta larunbat gauean besterik ez dira betetzen.

Joan den asteazkenean, ordea, sekulako giroa sortu zen Navarria kaleko iturriaren inguruan, eta Alde Zaharrean oro har. Jende anitz elkartu zen bertan, eta euskaltegi afariak ere ikusi ahal izan ziren.

Gaueko hamabietan, ordea, urtarrilaren 26a amaitu eta U-27-GO hasi zen. Urtarrilak 27, Greba Orokorra. Eta lehen pike-teak lanean hasi ziren, eta tabernak itxi ziren, eta aldarrikapen ozen bat entzun zen Alde Zaharreko karriketan barna. «Gutxieneko zerbitzuak nahi ditugu!».

Greba orokorraren atarian Nafarroako Gobernuak ezarritako gutxieneko zerbitzuak medio, eritetxeetan jai egun arrunt batean baino jende gehiagok lan egin behar izan zuen atzo. Lehen zein bi-

Lizarra

Udalak Sabeco enpresari emanen dio hiper berria eraikitzeko baimena

IRUNEA

Sabeco enpresak eraikiko du Lizarrako hiper berria, Udalak joan den asteartean erabakitakoaren arabera. PSOE, UPN eta EA taldeek aldeko botoa eman zioten proposamenari, eta HB eta CUE-LKBk, kontrakoak. Horrela ixten da azken urteotan izan den gairik eztabaidatuenetakoa, lehia horretan sartuak baitziren bese enpresa batzuk, Eroski tartean.

Honek ez du esan nahi, baina, azken enpresa honek beste hiperrik paratuko ez duenik, Udalak ez baitzikio atek itxi beste hiperri. Gogoratu behar da 1989an hasi zela Sabeco enpresa harremanetan Lizarrako Udalarekin hiper bat paratzeko, baina Udalak ez zion hasierako baimena eman. Ondoren, Nafarroako Gobernuak hartu zuen parte eztabaidan, eta proiektuak udalaz gairik eragina zuela erabaki zuen. Gakoa hiperren kokapena zen.

Eroski eta udalak berak beti hobetsi dute El Volante izeneko gurutzaren ondoko dermioa hi-



Lizarrak hiperra izanen du.

perrendako, baina Nafarroako Gobernuaren erabakiak zapuztu egin zituen asmoak. Hain zuzen ere, hori izan zen HB eta CUE-LKBren argudioa kontrako botoa emateko, eta Nafarroako Gobernuaren «inposizioa» kritikatu

zuten. Horren aurrean, bi taldeek arreta berezia eskatu zioten Udalari lanaren jarraipena egitera-koan.

Sabecoren arabera, 60 bat lanpostu sortuko dira bertan, eta % 95 Lizarrakoak izanen dira.

D. Garazi

Budokan ikastaroa

L. ETXEHARRETA / GARAZI

Datozen larunbat eta igandean, Donibane-Garaziko Jai Alaietan, 'budokan' ikastaro bat egingo da, Jose Perezek antolatua, Jean Pierre Pichereau Yo-seikan Budo kirolean 5. danera iritsia denarekin.

Budokan kirola, beste arte martzial askorekin alderatuz, karate, aikido, kenjutsu baino gu-tiago ezaguna da. Jose Perez, ki-rol horren bultzatzaile nagusi denaren arabera budokien meneko den kirola da budoka «sei urte-tarik 55 urte arte» eta, haur, gizon ala emakumeentzat egingarri dena.

Izurako Haize Berri Kultur Etxearen animatzaile ohia hiru urte hauetan kirol hori zabaltzen ari da. Donibane-Garazin hasi zen klub bat duela hiru urte, ondoko urtean beste bat sortu zen Donapaleun eta hirugarrena Baigorri. Jose Perezek dioenez, ki-rol horiek oro «aldi berean oso ohiturazkoak eta modernoak dira». Ikastaroan parte hartzeko telefonoz deitu behar da: 59 37 43 13 lan orduetan edo 59 37 43 13 bazkari afari orduetan.



garren hezkuntzako zentro bakoitzean ikastetxeko zuzendariak, ikasketa buruak eta zuzendariak izendatutako beste irakasle batek gutxieneko zerbitzuak bermatu zituzten. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuan 111 lagunek halabeharrez lan egin behar izan zuten.

Ez dugu hemen esanen legez ezarritako gutxieneko zerbitzu horiek zilegiak diren ala ez, baina bai berriz, zinez zilegia litzatekela ostalaritzan gutxieneko zerbitzuak egotea. Ez al da bada kome-nigarria grebaren bezperan bihamunean eginen dena eta ez dena garagardo batzuen inguruan aztertzea?. Ez al da bada greba egun-ean goizeko manifestazioaren ostean edota gaueko burutu eta gero kafetxo bero bat edo garagardo hotz bat hartzea? Datorren greba orokorrean asteazkenean gau-txori iruindarren aldarrikapen herrikoia aintzat hartuko delakoan, agur.

Joan zitzazki-
gun dinosau-
roak eta badatoz
budatxoak. As-
te honetan bertan es-
treinatuko den Bernar-
do Bertolucci zuzen-
dari italiarraren 'Buda
Txikia' pelikula,
usainaren arabera, bu-
domania dakar. Bertan
kondatzen den lama
baten bizitzak duela
2544 urte Nepalen jaio
zen Siddharta Gautama
printzearen bizitza go-
goraraziko dio askori,
Buda bihurtu zenarena,
hain zuzen. Egun Bu-
dismoa mundu zabale-
ko laugarren erlijioa da,
eta gorakada handia
izan du azken urteotan
Europa eta orokorrean
Mendebalde osoan,
bere erakargarritasuna
dela eta: bertan ez da
jainkorik, ez debekurik.
Budismoa, finean, nor-
berak bere buruari eta
bizitzari egokitzen ahal-
dion filosofia da, giza-
kiaren osotasunaren
bila. Nafarroan ez da
talde budistarik, baina
bai ordea bere aldaera
den Zen praktikatzen
dutenak. Folklorismo
kutsurik gabe, duela
zortzi bat urte osatu
zuten taldea, eta Japo-
nian sortu zen praktika
hau aurrera eramaten
saiatzen dira. Hori bai,
sekta izena baztertu
egiten dute segituan.
«Zen ez da ez erlijioa ez
sekta. Norberaren oi-
narria bilatzeko bidea
besterik ez».

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Budismo hitza aipatu orduko,
Tibeteko Dalai Lama eta 'Hare
Krisna!' oihukatzen duten la-
ranjaz jantzitako txoro saldo
etortzen zaio askori burura. Sek-
tak eta jarduera ezkutuak, filo-
safia arraroak eta lebitazioak.
Nirvana eta erlijio ezezagunak.
Baina hori kristautasuna klausu-
rako mojekin edo Jehova-ren
Testiguekin konparatzea be-
zainbateko akatsa izango litza-
teke. Denetarik eta denendako
baitago mundu zabalean lauga-
rren erlijioa den honen baitan.

Egun, Nafarroan ez da talde
budistarik —ez behintzat ofizial-
ki—, baina bere aldaera garran-
tziatsua den Zen bik praktika-
tzen dute, biak Iruñean. Jatorria
Japonian duen praktika honek,
ordea, Budismoarekin antzik ez.
Nahiz eta, batzuek, talde ezkutu
eta ez oso ezagunek dituzten jo-
kaerak oraindik badituzten. Ho-
rietako batekin —Zen 'Sanbo'
Zendo Betania izenekoarekin—
jarri zen harremanetan kazetari
hau, baina ez zioten komeniga-
ria iritzi ezer argitaratzeari. Iru-
ñeko Dominikoen komentuan
biltzen ohi dira, Ana Maria Sclit-
ter Rodes maistraren zuzendarit-
zapean. Bigarren taldeak Dojo
Zen du izena, eta astean bi aldiz
biltzen dira Monastegi Berriak
Plazako 7.ean duten lokalean.

ERLIJIOAZ Baina zer da
ETA BUDISMOAZ Zen egitea?
GAINDI Zer harre-
man dauka, bada, Budismoare-
kin? «Zen ez da erlijio bat, ezta
sekta bat ere», azaltzen du Eukeni
Callejo Iruñeko taldearen ardu-
radunak, «erlijioaz gaindi dago
eta baita budismoaz gaindi ere.
Taisen Deshimaru gure maisuak
esaten zuenez, azken helburua
Zenez haratago joatea da».

Zen egitea, eskola honeta-
koendako, zazen egitea da. Tek-
nika oso sinplea da. Bakoitzak
badu zoruan esertzeko kutxatxo
bat, eta batek hasteko eta buka-
tzeko epea markatzen du. Isilta-
sun erabatekoan, nor bere baitan
kontzentratzea da helburua, beste
asmo handirik gabe. Hiru dira
kontrolatu beharreko puntuak:
postura, arnasa, eta buruaren ja-
rrera. Teorian ezin sinpleagoa,
baina praktikan, Eukeniaren esa-
netan, oso sotila eta sakona. «Zer
da zen egitea? Bada, 12 urte ho-
rretan eman ondoren, ez dakit
azaltzen. Zen norberaren burua
ulertzeko bide bat da. Ez dago
dotrinarik, lortu beharreko zer-
bait, baina nork bere burua uler-
tuz gero, mundua eta errealtate
osoa ulertzeko bide ematen du».
Hala ere, meditazioarekin zeri-
kusi gutxi daukala dio. «Zen ez
da helburu bat lortzeko zerbait,
ez da teknika bat. Hau da, ez da
zerbaiti buruz pentsatzea, eta

Zer zen Zen?



Zen norberaren
burua ulertzeko bide
bat da. Eta burua
ulertuz gero, mun-
dua eta errealtatea
ulertzeko bidea
ematen du».



konpara daiteke mendi baten ton-
torretik igarotzen diren lainoe-
kin: ideia guztiei igarotzen uzten
zaie, eta garrantzitsuena da kon-
tzentrazioari eustea, hala arnasa
hartzean nola postuari heltzean».

Lehen taldea duela zortzi urte
osatu zen Iruñean, eta lau izan
ziren garai hartan, laurak Fran-
tziako La Gendronnière zentroan
ibiliak. Zentro hau 1979an za-
baldu zuen Deshimaru Japonia-
tik etorritako monjeak eta ordutik
aurrera Europa osoko peregrina-
zio zentro bilakatu zen Zenza-
leendako. Iruñean lagun baten
etxebizitzan aritu ziren hasieran,
Seminarioaren ondoan, eta az-
kenean eskuratu zuten lokala.
Euskal Herriko hirugarren taldea
da, Bilbon aurretik eta Gasteizen
ondotik osatu baitziren antzeko
taldeak, eta haien arteko harre-
manak zuzenak izateaz gain,
maiz Zen praktikatzen dute elka-
rrekin. Halaber, Nazioarteko Zen
Elkarteko partaideak dira.

ALDAKETAK Gaia ezagutzen ez
BESTEAK duen edonork Ja-
SUMATZEN ponian eta Ekial-

deko kulturaren oinarria duen fi-
losofia edo praktika bat Mende-
baldeko ikuspegiarekin nola
molda daitekeen galdetuko du
lehenbizi. Eukeniaren esanetan,
ez du axola handirik sorteria non
duen, bizitasuna non duen baizik.
«Zen Ekialdekoa da, Japoniakoa,
baina bizitza duen tokioa ere
bada. Japoniar asko hurbildu dira
azken urteotan Frantziako gure
zentzora, eta harridura gelditu dira
bertan 400 pertsona eserita, era-
bateko isiltasunean Zen egiten
ikustean. Beraiek aditua edo ira-
kurria soilik baitzeukaten. Kris-
tautasunarekin gertatzen denaren
antzekoa da. Europan malda be-
hera dago, benetan ahulduta, eta
beste tokietan indar handiagoa
izan dezake gaur egun hemen
baino».

Praktikaren poderioz, aldaketa
sakonak dira pertsonaren baitan,
baina hori norberak sumatu bai-
no, besteek sumatzen dutela dio
gazte honek. «Haritz baten an-
tzekoa da. Hau da, ez da ikusten
nola hazten den, baina hamar
urteren buruan, koskortu egin dela
antzematen diogu. Nik gauza be-
ra sumatu dut beste lagunengan,
izugarri aldatu direla urteen joa-
nean. Aldaketak desberdinak di-
ra pertsonaren arabera, baina beti
ere, oso sakonak».

Egun Espainian Zen eta talde
budisten Elkarteak sortzeko aha-
leginetan ari dira, baina Iruñeko
taldean ez dago horretarako as-
morik. Aitzitik, Budismoarekin
bezainbesteko harremana dutela
Kristautasunarekin diote. «Bada
jendea budista dena, eta baita
kristaua ere. Eta badira ezertan
sinesten ez dutenak ere. Zen-ak
ez baitu norberaren ideologia
baztertzeko».



仙門
慕仙



清
風
拂
月
潭
心
似
秋
月
碧
潭
清
皎
潔
無
物
堪
比

Pikondoaren azpian hasi zen

A.B. / IRUNEA

Siddharta Gautama Nepaleko printzea Confucio, Lao Tse edota Pitagorasen garaikidea izan zen. Uzta hona, bistan da. Hautzaro zoriontsu eta aberatsa izan ondoren, 29 urterekin bere jauregitik atera eta hunkituta gelditu zen ikusi zuenarekin. Orduan bideak kurrizteari ekin zion, eta 35 urte zituela, pikondo baten azpian eseri eta Buda (gogargietsi) bihurtu zen. Berarekin hasi zen egun, garrantziari dagokionez, laugarren erlijioa dena —kristautasuna, islamismoa eta hinduismoaren atzetik—.

Urteen poderioz, India, Txina, Tailandia, Kanputxea, Korea, Mongolia eta Japonia bereganatu zituen budismoak, eta hor gelditu zen, azken mende hau heldu arte. Logikoa denez, hamaika sekta ezberdinetan banatuta heldu zen, eta garrantzitsuenak Hinayana eta Mahayana izenekoak. Lehendabizikoa Buda historikoari atxikita gelditu da, Asiako hegoaldean finkatuta. Bigarrenak izan zuen garapen handiena, bi eskola nagusirekin: Japoniako Zen Soto eta Tibetekoa.

Bi eskola hauek dira nagusi, hain zuzen ere, Mendebaldean zabaldu den budismoaren artean, eta Eukal Herrian Soto Zenek dauka jarraitzaile gehien. Taisen Deshimaru maisu japoniarrak ekarri zuen Europara aldaera hau. Sagan (Japonia) jaioa 1914ean, Kodo Sawaki maisu handiaren jarraitzailea izan zen. Sawakik, bere aldetik, Dogen Maisua Zen Sotoren fundatzailearen ispiritua berreskuratu zuen, eta Deshimaru Europara etortzera bultzatu.

Deshimaru 15 urtez bizi izan zen Parisen, eta ehundik gora dojo (zen egiteko tokiak) fundatu zuen mundu zabalean. Berak era-

tu zuen, halaber, Mendebaldeko tenplurik handiena La Grendonièren (Frantzia) eta Nazioarteko Zen Elkarte. Horien barruan badira budistak, kristauak edo beste erlijioetako hainbat kide, bere funtsa zazen egitea baita. Deshimaru maisuaren esanetan, «zazen egitea oso baliagarria da gogo zabaltzeko eta intuizioa garatzeko. Zazenek energia handia askatzen du, eta esnatzeko jarrera besterik ez da».

Zazen ongi egiteko gorputza, arnasa eta ispiritua kontrolatu beharra dago. Gorputzak zafu ize-

neko kojín baten gainean egon behar du, tente, eta begiak itxita. Eskuak altzoan jarrita, gora begira, eta ezkerrekoa eskuinekoaren gainean. Arnasa ongi hartzea funtsezkoa omen da, eta horretarako neurri pausatua baina sakona eta naturala eraman behar da. Honek energia handia ezartzen du gerrian, giltzurrintan eta aldakan; eta, beraz, zentroa burutik *kikai tanden*-era pasatzen da, hau da, zil ondoan dagoen puntu batera. Praktikaren poderioz, arnasa hartzeko modu bat ohitura bihurtzen da eguneroko bizitzan, eta oso baliagarria da emozioak kontrolatzeko eta ispiritua lasaitzeko.

Kontrolatu beharreko hirugarren jarrera izpirituarena da. Zazen egiten den bitartean pentsamenduaren jarria eteten da. Orduan sakoneko burmuina esnatu egiten da, eta bere jarduerak puntu gorena lortzen du. Edozein pertzepzio jasotzeko gaitasuna gori-gorian dago, eta gorputzarekin pentsatzen da, energia erabili gabe. Helburua ez da pentsamenduei traba egitea —hori pentsatzea izango bailitzateke—, baina pentsamenduei igarotzen uztea. Dena dela, zazen azaltzea sagarra inoiz jan ez duen bati bere zaporea azaltzea bezain zaila dela diote.

Jakina, hau da bide bat, baina hau bezalako mila daude. Funtsan, ezberdintasuna metodoan dago, oinarri bera baitaukate praktika hauek guztiek: gizakia- ren jatorrizko izakera berreskuratzea, eguneroko bizitzan baliagarria izan dakigun. Euskal Herrian, esan bezala, hiriburu gehienetan badira horretarako taldeak, eta Donostian ere osatzen daude bat. Hala ere, Zen egin ahal izateko talde hauen barruan egoitea gomendatzen dute adituek.



Oroitzapenak

● Gazte denborako oroitzapenak beti badute garrantzi handia batez ere euskal kulturari lotuak balin badira. Gerra aitzineko Euskal Billerak eta bertsolariak gogoan dauzkate. Oroitzen naiz nola etortzen ziren urtero Erratzura Donostiako Eusko Gaztedikoak. San Juan aitzinean egiten zuten bidai hori Erratzura eta yende aunitz biltzen zen euskal besta hortara. Bertsolariak eta euskal erromeria, billera horren oinarria.



1936-ko Urtarrilaren 19-an ospatu zen Donostiako 'Victoria Eugenia' antzokian, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako Azken Saio Nagusia. Sekulako arrakasta ukan zuen bertsolari besta horrek, sarrera guztiak saldurik kanpoan hainbertze yende gelditu zen, Antzokian lekuri ez zelakoz.

Bederatzi bertsolari negurtu zituzten eta hemen erakutsiko dugu Txapelketa hortan parte hartu zutenak: Zepai (Errezil), Dargaitz (Amaiur), Etxeberria (Andoain), Txapel (Azpeiti), Iriarte (Banka), Harriet (Aldude), Txirrita (Altza), Uztapide (Zestua), Lujanbio (Errenderi); Eltzaburuko Mutuberria ere izendatua zagon Billera huntarako baina ez zen etorri. Gai-jarzaile Iñaki Eizmendi 'Basarri' eta Epai-maiko Yau-nak, Ariztimuño, Altzaga, Leizaola, Lekuona eta Olai-zola. Mota guzietako gaiak erabili zituzten eta hoi-en artean hauxe: 'Gerra zitalaren aurka' bertsolari guziek bertso bana. Hemen Txirritarena:

Zenbait errezo egin izan det Nere denboran Elizanta pozik nago ikusirikan pakian nola gabiltzan, ni naizen bezin kobarderikan inor ezin leike izan semeak gerrara ez yoateatik mutil-zar gelditu nitzan

Bertsolariak ongi negurtuak izan ziren eta Epai-Maikoek holaxe erabaki zuten: 1. Txirrita txapeldun (Saria 150 Pta); 2. Uztapide (100 P); 3. Zepai (75 P); 4. Dargaitz (50 P); 5. Iriarte 25 P. Sari gabeko bertze bertsolari guzietan, 25 P. bako-txari eman zizkioten. Bertsolari zaharrenari 25 peztako Saria Txirrita-rentzat eta gaztenari Triarte-ri bertze 25 peztako Saria. Oroitzapen hunkigarriak lehenagoko bertsolariak, bi-hotzaren erdiak kokatuak.


吾心似秋月
清皎潔無物堪比

吾心似秋月
清皎潔無物堪比

吾心似秋月
清皎潔無物堪比



XAKEAN



Iruñea Hiriko Torno Irekiaren 7. jardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 3an jokatu.

Ignacio Martinez (Euskal Herria)—Lucas Cisneros, 2.355 ELOkoa (Espainia).

1.d4,Zf6; 2.Zf3,g6; 3.Ag5,-Ag7; 4.bZ-d2, 0-0; 5.c3,d6; 6.e4,bZ-d7; 7.Ac4,e5; 8.0-0,h6; 9.Ah4,De8; 10.Ge1,Zh5; 11.e5,-e5. Txurien piezak hobeto daude. Erregearen ondoko alfila geratu zaie beltzei. 12.Zf1,Zb6; 13.-Ab3,a5. Peoi hau atera da bizkarrara zainduta eduki gabe (zaldia- ren posizioagatik). Puntu ahul bihurtuko da.

14.a4,Ae6; 15.Ze3,c6; 16.-Zd2,Zf4; 17.Ae6,De6; 18.Db3,-Db3; 19.Zb3. Ikusi koadroa. Aldaketa hauekin txuriek ezin hobeto kokatuak dituzte zaldiak. 19....Ze6; 20.f3. Oso asmo maltzurra. Alfila jokoan sartuko da. 20....fG-e8; 21.eG-d1,h5; 22.-Af2,eG-d8; 23.Gd8 xa,Zd8; 24.-Zd2,Ah6; 25.eZ-c4. Helburua lortuta. Beltzen gazteluaren peoia erortzear dago.

25....Zd7; 26.Zb3,Af8; 27.-Gd1,b5; 28.cZ-a5,a4; 29.Gd7,-b3; 30.Zb3,Ze6; 31.Aa7,Zf4; 32.Ef2,Zd3 xa; 33.Gd3,Ga7; 34.-Zd2,Ga1; 35.b4,Gd1; 36.-Ee2,-Gg1; 37.Ef2,Gd1; 38.Gd8,Eh7. Tamalgarria jokaldi hau! Txurriak izugarri ondo bideratzen ari ziren partida. Huts honek erraztu zien lana, partida borobiltzeko aukerarik gabe. 39.-Ee2,-Ae7; 40.Gd7. Beltzek etsi egin zuten.

Pertsonai berezi bat

Pertsonai berezi hau nire buruan eratuta dago eta ez da imaginarioa, gutxienez orain ia ez, eratu edota erabiltzen hasi nintzenean ustezkoa zela ziur nago, baina orain jadanik ez. Pertsonai hori edozein ipuinetan edo eta lerrotan (hitz egiterakoan) agertzen da, nik nahi edo jakingabe beti ezpainenat dut kanpora irtetzeko, eta berak ez du asko itxaron beharrik, nik edozein adibidetan sartzen dut eta, ahoa ireki bezain laister bertan ateratzen zait.

Pertsonai honek 'Jaime' du izena, eta orduan hemendik aurrera bere izenaz deituko dut.

Ni kalera irtetzen naizenean eta noski nire laguna Jaime nirekin irtetzen denean, ezin dut esan adibide batean 'Pepito' edo 'Jaimito', nahiz eta azken hau, Jaime izenaren diminutibo kuttuna izan. Ez, ez eta ez, ezin ditut azken hauek aipatu, Jaime esan behar dut, eta hau ia arazo bat bilakatzen da, izen hau aipatu ondoren korapilo antzekoa sortzen baitzait eztarrian. Hainbat alditan gertatzen zaidanez lehe-



Victor Mendaza

BARAÑAIN

nengoz gustokoa nuena gorrotatzen dut jadanik.

Ailegatu naiz pentsatzera ni beste bizitza batean —aurreko bizitza batean— Jaime izeneko pertsona (noski, alai eta farretsua) bat izan nintzela. Hau gertatu ahal da, beharbada beste bizitzako Jaime hau 'Jose' izeneko ondorengoa izan zela gertatu ahal da, hauxe da, 'berragapena' izeneko fenomeno egiazko fenomeno izan ahal da.

Nahiz eta gelan egon etz naiz berarengandik aldentzen, nik adibide jarri eta kapun! han dago Jaime nekagarri hau. Lehen komentatu dut hau, pertsonai hau zela imaginarioa, nahiz eta izan baino ez ez kontsideratu, eta hori oso desberdina da.

Hauetan (gertakizuna, orokorki begiratuta) alde psikologiko bat dago honen azpian (eta ez naiz jakintsuarena egiten ari). Ez da bakar-bakarrik gertatzen den zera bat, identifikazio antzeko bat baizik.

Ondo da, jadanik sendaturik nago. Ez zait gehiagotan agertzen, ohera noa, lana bukatu dut eta. Ohean sartu eta Jaime...



JUANTXO URDIROZ

Errefuxiatu irlandarrak Nafarroan XVIII. mendean

Errefuxiatuen aferra ez da gaurkoa, eta hemengo jendea ere arrotzak jasotzen ibilia da. Zerbaiten truke izaten da laguntza, ez musutruk, gure kasuan bezalaxe. Agiriaren arabera, batzuren batzu 1705. urtean Lerin herriaren inguruan bizitzera geratu zirela ematen du. Informazio iturria Nafarroako Artxibo Nagusia da. Hona hemen gure agiria, non franko ongi kontatzen bait da guzti hau:

Nafarroako erresumako muga eta barrutien kapitain txit gorena

eta erregeordea, Solerako markesa, Risco-ko kontea den Luis Benabides eta Aragon jaun honek aditzera ematen du, nola erregeak, zein Jaungoikoak salba bait dezan, politika nahiz erlijio aferetan irlandarrei lagundu nahirik, zeinak gure erlijio sakratu bihurtzeagatik erromes eta behartsu dabilzan gure erresuman, irlandarrak ongi tratatzeko agitzen duen, eta modu honetan beste asko etsaiaren armadan izkutua daudenak desertatuko lirateke eta hori komenigarri asko



Ez usteak zure atea joka

Erregetzaren nahia ahalik eta irlandar gehien Britain Haundiaren armadetatik desertatzea zen.

litzateke. Erresuma honetan egoteko baimena ematen zaie kristauak badira, Guda eta gero bihurtuak izanda ere, eta lagunekin harremanetan sartzera uzten zaie, eta luzaroan hemen iraun dutenak bertakotzat hartzeko, (Irlandako) Inkisizioak haiei zer aurpegiaturik ez baldin badauka, eta berri hau denek jakin dezatela, eta erregeren mandatu hau bete dadin nik honako gutun hau sinatzen dut, eta erresuma honetako hiri eta merindate guztietan argitara bedi. Sigiluak.

Enric Gonzalezen ustez, Europako historiari latzena duen herria Irlanda da. Ez dago aldatzerik irlandarrek nozitu dutena eslabotarrek edo balkanestarrek pairatu dutenarekin. Beltzak European esklabu aritu baino le-

hen, lanpostu hori irlandarrek hornitzen zuten, Judutarrak baino denbora gehiagoz jipoiuak, sekulako goseteak ezagutuak, etorkizun mintegirik oparoena, mesprezu guztien amua. Britain Haundiaren lehendabiziko eta azken kolonia, eta gupidarik gabe mendeetan zehar zapalduak.

Espainiako erregetzaren nahia ahalik eta irlandar gehien Britain Haundiaren armadetatik desertatzea zen. Aitzakia erlijio izanik ere, funtsean aferra politikoa da. Irlandarrak kristauak izanik, nahitaez lagundu beharrek ziren, eta desertatzeko aurrerabiderik onenak eskeini egin behar zitzaizkien. Britain Haundiari egurra emateko modu bat baino ez zen.

Iruñeko Planetarioak bere lehendabiziko balantzea egin berri du. 50.000 pertsona inguruk bisitatu ditu proiektio gela eta erakusketak, eta baikor dira bertan. Aste honetan zabaldu da Voyager espaziontzia Neptunora egindako bidaiari buruzko erakusketa izarrekin amestu nahi dutenendako zentro honetan.

Planetei begira

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Hamar egun itxita egon ondoren, hainbat lan egin behar zirela eta, joan den astean zabaldu zituen berriro bere ateak Iruñeko Planetarioak. Hori aprobetxatuz, eta hurrengo astetik aurrera Nafarroako ikastetxeetatik egin beharreko bisitaldiak hasiko direnez, lehen bi hilabete hauetako balantzea egin du Javier Armentia astrofisikoak zuzendutako lan taldeak. Orokorrean, emaitza positiboa, jende franko hurbildu baita erakusketak eta proiektio gelako emanaldiak ikustera. «Haien erantzuna oso ona izan da», dio prentsara igorritako txostenak.


Izan ere, ekainetik aurrera izan diren erakusketetara eta azarotik aitzinera zabaldu zen proiektio gelara 50.000 lagun inguru hurbildu dira. Horien artean azpimarratzekoa da 'Felipe III.aren Erreinuak pintoreak' erakusketak izan zuen arrakasta, 20.000 bisitarik ikusi baitzuten. Erakusketa hau Madrilgo Pradoko Museoaren koadro zenbaitekin antolatu zen. Orobat, erantzun oso ona jaso zuten beste hainbat ekintzak: ekainean izan zen Nafarroako Gazte Institutuko Komiki Lehiaketaren erakusketa; uztailan aurkeztu zen 'Donejakue Bidea: Geografia eta Paisaia' erakusketa; abuztuko 'Aireko Zura' izenekoa, II. Bideoaldia, Vianako Printzea erakundeak antolatuta; eta 'Bizitzak ematen dituen itzuliak' eta 'Unibertsoarekin jostatzen' izenekoak. Bestalde, Tornamira Proiektio Gelara 11.000 lagun sartu ziren, horietariko 10.389 'Esne Bidea' izeneko programa ikustera, eta 640 'Belengo Izarra' ikustera.

NEPTUNO MUNDU BERRIA Hain zuzen ere, urte berriarekin batera, ikuskizun berria ikusteko parada izango da Proiektio gelan, 'Neptuno, Mundu berria' izenarekin. Horretan aipatzen dira Voyager izeneko sonda espazialak egindako azken aurkikuntza eta bere bidaiak ekarritako gauzarik azpimarragarrienak.

Voyager II 1977ko abuztuan abiatu zen espaziora, eta bere bidean unibertsoari buruzko inoizko daturik interesgarrienetakoak bidali ditu Lurrera. Jupiter 1979ko uztailan bisitatu zuen, Saturno 1981eko abuztuan eta Urano 1988ko uztailan. 1989ko abuztuan Neptunotik gertu igaro zen, eta bertatik bidalitako irudi eta datuek hain ezezaguna zen planeta horri buruz informazio oso baliotsua eskaini zuten.

Neptuno gas puxika handi bat

da, urdin-urdina. 49.100 kilometro inguruko diametroa dauka, eta benetan oso hotza da, bertara Lurrak jasotzen duen argiaren milareneko bat heltzen delako. 220 gradu zero azpitik dago azalean, eta Hidrogenoak, Helioak eta metanoak osatzen dute bere atmosfera. Halaber, haizeak izugarriko indarrarekin jotzen du, eta 2.000 kilometro ordukoak izan daiteke. Voyager II.ak bere bideari jarraituko dio, gutxi gorabehera 2015 urte arte, plutoaren bidez martxan dauden bere bateriak orduan akituko baitira.



Kultur Etxea nahiago

P.U. / IRUNEA

«Gora begira jarri, eta ikus itzazu izarrak», izango litzateke Planetarioaren jatorrizko leloa, baina horretaz gain, bi hilabete eskas hauetan Javier Armentia lan taldeak eskaintza anitza eta erakargarria sortu duela ezin uka. Horren lekuko dira, proiektio gelara joan diren 11.000 bisitariez gain, orokorrean erakusketa guztietara azaldu den 50.000 pertsona. Armentia ustetan, hasierako zenbaki hauek guztiz itxaropentsuak dira, eta urteren amaieran aurrikusita zegoen zifra gandi-

tuko dela dio, baikor. «Goiz da balantze moduko zerbait egiteko, baina bistan da hilabete bakar batean daramagun martxarekin aise gaintu ahal izango ditugula hasierako zifrak».

Proiektioak eta erakusketak: aukera ezberdina zentro bakar batendako. Horrek sortu du Planetarioaren inguruan identifikazio eza, eta jende askok erakuntza honen betebeharrak zehazteko arazoak. Erakundearen zuzendariaren esanetan, identifikazio falta hori «nahita» bilatu da. «Arazoa sortzen da gauza desberdinak izendatzeko hitz berberak erabiltzen ditugunean. Planetarioak Kultur Etxe antzeko zerbait izan nahi du, hau da, erakusketak, mintzaldiak eta proiektio gela. Eta guzti hori da Planetarioa, ez bakarrik izarrek maite dituztenendako toki bat». Zuzendariak azaltzen duenez, Iruñean eta inguruan aurretik ez zegoen eskaintza kulturala bete nahi du erakuntzak. «Indefinitioak parada ematen digu gauzak nahasteko, hau da, ez bakarrik artea edo zientzia eskaintzeko».

Bertara hurbiltzen direnen artean inkesta egiten da, emaitzak neurtu ahal izateko, eta orokorrean onarpena nahiko ona dela azpimarratzen du Armentiak. «Jendeak ongi ikusten du aniztasun kulturala, eta zerbaitekin konparatzeko esaten zaionean, zinema aipatzen dute askok. Hori positiboa da».

«Ospe handiagoa merezi dugu»

JUAN KRUZ LAKASTA / IRUÑA

EGUNKARIA.— 1994ko urtarilaren lehenean Pablo Sarasate Orkestraren zuzendaritza zure esku geratu zen. Zein dira horrez geroztik topatu dituzun arazorik handienak?

MIQUEL ORTEGA PUJOL.— Batetik, eta gainontzeko guztien oinarrian, behar baino dirulaguntza murriztagoa, eta bestetik musikari eta zuzendaritza batzordearen arteko tirabirak.

EGUNKARIA.— Orkestrak Nafarroako Gobernutik 137 milioi pezeta jasotzen ditu, eta aurrekontu egokia 170 milioi-koa litzateke. Zer egingen zenuke falta zaizkizun milioi horiek lortuko bazenitu?

ORTEGA PUJOL.— Ezin da ahantzi orkestra honen helburua 40 soka instrumentu edukitzea dela, eta egun 22 besterik ez dituela. Dirurik gabe ezin ditugu falta zaizkigun 18 horiek lortu, eta horiek lortu gabe nabarmen murrizturik geratzen da gure erreperitorioa. Beraz, dirua izanez gero orkestra egun bezala 35 musikariz osaturik egon ordez, 53 musikariz osaturik egonen litzateke.

Bestalde, diru gehiago izanik bakarlarri gonbidatu gehiago kontratatuko genituzke. Egun maila handiko musikariak ekartzen ditugu, baina egon badaude ekarri ezin ditugun izar handiak. Musikari batzuei orkestra gaztea dela, eta lehen urratsak ematen ari dela esaten diezunean ohi baino gutxiagoren truke etortzeko prest izaten dira. Beste batzuk ordea, ez, eta horiek «Zenbat? Agur, beste bat arte» esaten dizute.

EGUNKARIA.— Zertan daude langile eta zuzendaritza batzordearen arteko tirabirak?

ORTEGA I PUJOL.— Tirabira horiek konpontze bidean daude, zuzendaritza batzordeak azaldu didanaren arabera. Afera aurki konpontzea espero dut; izan ere, horrelako egoerak eragin nabaria izaten dute orkestraren alderdi artistikoan.

EGUNKARIA.— Arazoak aipa-

tu ditugu. Aipa ditzagun orain topatu dituzun gauzarik hobereak.

ORTEGA I PUJOL.— Hoberena orkestra gazte bat topatzea izan da. Gazteak direnez, musikariak gauzak egiteko irrikitan daude. Bestalde, euren maila arrunt ona da, nazioartean onargarria.

Behar baino hari instrumentu gutxiago dauzkagunez, soinua ez da nahi bezain sendoa, baina maila onargarria da oso, eta horrela adierazi dute hona etorri diren zuzendari gonbidatu guztiek.

EGUNKARIA.— Juan Luis Temesek, ostegunean orkestrako zuzendari gonbidatu gisa aritu zenak, orkestra maila onekoa

dela eta Nafarroako gizarteak bere maila ez duela behar bezala aintzat hartzen adierazi zuen. Bat al zatoz berarekin?

ORTEGA PUJOL.— Bai. Izen handia duten beste orkestra batzuk bezain ona da, baina hori ez da kontuan hartzen. Agian ez zaio merezi duen publizitatea ematen. Orkestra handia da, eta egon badaude baliabide asko oraindik era lantzeke daudenak. Orkestra Nafarroan zein estatu osoan gehiago ezagutarazi beharko lukete. Ospe handiagoa merezi du.

EGUNKARIA.— Orkestraren maila altua azpimarratzeaz gain, Iruñera ailegatu bezain laster musikariek lan gehiago

egin beharko zutela iragarri zenuen. Hasi al zarete dagoeneko entseiu gehiago egiten?

ORTEGA PUJOL.— Bai, lan plangintza erabat aldatu da. Ailegatu nintzenean orkestra musikariek, zuzendaritza batzordekideek eta nik neuk ikusi genuenaren arabera, argi zegoen lan gehiago egin behar zela. Kontzertu bakoitzeko bizpahiru entseiu besterik ez ziren egiten, eta hori gutxiegi da, baldin eta tradizio handiko orkestra batekin lanean ez bazabiltza. Gurea orkestra profesionalizatu berria da, eta lan areagotze horrek hobekuntza nabaria ekarriko du.

EGUNKARIA.— Lan plangintza ezezik orkestraren erreperitorioa ere aldatu duzu; izan ere, horretan musika garaikideari tarte handiagoa zabaldu diozu.

ORTEGA PUJOL.— Bai. Espainiar konpositore garaikideen obrak sartu nahi ditut gure kontzertuetan. Hemen musika garaikideari dagokionez altxor handia daukagu, eta hori ezagutzera eman behar dugu. Jadanik Nafarroako zenbait konpositoreren obrak estreinatzen ari gara, eta kanpoko beste konpositoreekin harremanetan nago. Entzulegoa larritu ez dadin, aipatzekoa da musikari garaikideek musika egiteko orduan berriro ere publikoa aintzat hartzen ari direla, eta ez diotela bizkarra ematen orain gutxi arte bezala.

EGUNKARIA.— Zikloko kontzertuei dagokienez, hori ez da aldaketa bakarra izanen.

ORTEGA PUJOL.— Ez. Berrikuntzei dagokienez, aipatzekoa da zuzendari gonbidatu anitz ekartzeko asmoa dugula. Musikarientzat ona da beste zuzendarien lan egiteko modua ezagutzea. Aurtun Miguel Roa eta Juan Luis Temes etorriko dira, eta datorren denboraldian gutxienez lau etortzea espero dugu. Dena dela, nik ahalik eta denbora gehien pasako dut orkestrarekin, ezinbestekoa baita zuzendariak bere orkestra ezagutzea eta orkestrak zuzendaria. Bestalde, Iruñeko Orfeoiarekin gehiago lan egiteko asmoa dut.

Pablo Sarasate orkestraren arazorik handiena, eta gainontzekoen sorburua, behar baino dirulaguntza murriztagoa jasotzea da.



OSKAR MONTERO

Miquel Ortega Pujol

ORKESTRA ZUZENDARIA



SOSLATA

Eskola zaharrekoa

Antzina, Alemaniako eskola zaharren ohiturari jarraituz, orkestra zuzendari izan nahi zuten musikaria antzokian behetako mailetan hasten zen lanean, eta antzokian barrena bide luzea egiten zuten zuzendari izatera ailegatzen zen arte. Antzinako bide zahar hori hasieratik bukaeraraino ibili du Miquel Ortega Pujolek. Hamar urte igaro zituen Liceo Antzoki Handian lanean. Madrilgo Zarzuela Antzoki Lirikoan segitu zuten bere bidea, eta bertan lanean ari zela, estreinako orkestra zuzendari gisa aritu zen, Iruñeko Gaiarre antzokian 1.990ean. Gaiarre gustukoa izan zuten, eta urtarilaren lehenean bere esku hartu zuten Pablo Sarasate orkestraren zuzendaritza.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

